

DIRU SARRERAK:

Guk aukeratu dugun prezioak ezartzeko mekanismoa dinamikoa da, hau da, prezioak merkatuaren arabera aldatzen joango dira.

Bezeroek kapsula bat hartzeko garaian ikusiko dute nola hauen prezioa aldatzen joango den aukeratzeko duten lekua eta tokiaren arabera, erosotasun gehiagoko kapsula bat aukeratzeko badute honen prezioa igoko egingo da, aldiz, sinpleagoa den kapsula bat aukertzen badute merkeagoa aterako zaie.

Gure web-gunean ofertak egongo dira, adibidez, taldeka hartzen badute kapsulak, merkeago aterako zaie bidaia.

Denbora askorekin hartzen badute bidaia merkeago aterako zaie, zenbat eta beranduago hartuz, orduan eta garestiago izango da.

Pixkanaka prezioak igotzen joango dira stock-aren arabera, Stock- a oso txikia bada prezioa garestiagoa izango da eta stock- a handiagoa bada merkeago. Horregatik esan dugun bezela, komenigarria izango da denbora askorekin bidaia erostea.



Bidai asko egiten badituzte gure enpresarekin, oferta desberdinak izango dituzte egiten dituzten bidaien kopuruaren arabera.

Diru sarrerei, hainbat gastu kendu behar dizkiegu, adibidez, langileei ordaindu behar zaie, hegazkinen mantenumendua eta garbiketa edo erosi behar diren elikagaiak eta produktuak...

Gure zerbitzuaren prezioak zenbat eta urrunago, orduan eta garestiago izango da, Asiarako bidaia gutxi gorabehera 400-600 euro balioko du, Europara bidaiatzeko 200-400 euro, Afrikara joateko 300-600 euro balioko du bidaia, Amerikara joateko 500-600 euro eta Ozeaniara joateko 600-800 euro balioko du, hau garestiena izango da bidai oso luzea egin behar delako.

Web-orrian informazio gehiago egongo da prezioei buruz, honetan zehazki aterako dira herrialde bakoitzaren prezioak.